



PRENTSA OHARRA

GUREAKEK ERASMUS+ PROGRAMAN DUEN PARTAIDETZA SENDOTU DU

- **Azken hiru urteetan 24 ikaslek eta 7 profesionalak parte hartu dute hainbat programatan, Erasmus+en baitan.**
- **Erasmus+ programak desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako LHko eredia aberasten laguntzen du.**

Donostia, 2023ko uztailaren 1ean. GUREAKek kalitatezko proiektuak kudeatzen dituen erakunde gisa 2020an Erasmus+ programaren akreditazioa lortu zuenetik, desgaitasuna duten 24 pertsonen eta 7 profesionalen hainbat ekimenetan parte hartu dute.

Zigor Sagarduik, GUREAKeko prestakuntza-arduradunak azaldu duenez, oso prozesu aberasgarriak dira, ikasleei autonomia eta konfiantza eskuratzen laguntzen baitie. "GUREAKen Lanbide Heziketa ikasten duten pertsona gehienek ez dute bidaiatzeko aukerarik izan, eta erronka bat den arren, aukera paregabea ere bada".

Hortensia García aurten Finlandiara joan den LHko ikasleetako bat da, eta esperientziaren oroitzapen oso polita gordetzen duela dio, "atzerrira bidaiatzen nuen lehen aldian, eta urduritasun asko pasatu nituen, baina orain harro nago nire buruaz, gai izan nintzelako. Gainera, bidaiaren lehen etapa ezberdinak prestatzeko dinamikak egin genituen eta oso lagungarriak izan ziren" adierazi du Hortensiak.

Europako Erasmus + 2021-2027 programa hiru jardueraren ildoren edo funtsezko ekintzen inguruan egituratzen da, eta GUREAKek horietako bitan parte hartzen du, KA1 eta KA2, hain zuzen ere.

Urtero berritzen diren KA1 proiektuek pertsonen hezkuntza-mugikortasuna bultzatu nahi dute. Ildo horretan, GUREAKek trukeak egin ditu Finlandiako prestakuntza-zentroekin; 24 ikasle joan dira Finlandiara eta GUREAKek herrialde nordikoko 10 ikasle jaso ditu. Bidaiak 15 eguneko iraupena dute, eta lau laguneko taldeetan bidaiatzen dute, laguntzaile batez gain.

Ildo berean, profesionalen trukea ere aurreikusten da, eta orain arte GUREAKen prestakuntza eta enpleguaren arloan lan egiten duten zazpi pertsonen aukera izan dute Finlandiara, Alemaniara eta Estoniara bidaiatzeko, desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako hainbat prestakuntza-zentro bertatik bertara ezagutzeko. Bakartxo Bandresek, joan den hilean Estoniara bidaiatu zuen profesionaletako batek, Europako

beste zentro batzuen egunerokotasuna ezagutu eta hango profesionalekin esperientziak trukatu ondoren honakoa adierazi du: “gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten lagundu dit eta hainbat idea berri ere ekarri ditugu”.

Bestalde, KA2 jarduera-ildoak erakundeen arteko lankidetzan oinarritzen ditu bere proiektuak. Ildo horretan, 2021-2023 aldian, GUREAKek bi proiektu jarri ditu abian: Train for International Trail eta Train Sustain, biak bi urtekoak.

Train for International Trail programaren bidez, bidaiatzerako orduan lagungarri izango diren prestakuntza-materialak diseinatzen dituzte ikasleek; aireportu batean mugitzeko gidak, oinarrizko hitzak dituen hiztegia, etab. Bestalde, Train Sustain proiektuaren ardatza birziklapena eta ekonomia zirkularra izan dira, eta Danimarka, Belgika, Zipre eta Portugaleko zentroekin elkarlanean aritu dira.

Datorren ikasturteari begira, GUREAKek hiru proiektu aurkeztu ditu desgaitasuna duten pertsonen prestakuntzaren inguruan ostalaritzaren arloan; integrazio-prozesuen hobekuntza, desgaitasuna duten etorkinei harrera eta prestakuntza-ibilbide digitala garatzea.

Etorkizunari begira, Europa mailako sareak zabaltzen jarraitzea eta herrialde berriekin trukea bilatzea da helburua.